



Arartekoaren 2018R-1715-17 Ebazpena, 2018ko uztailaren 11koa. Horren bidez, Bilboko Udalarari gomendatzen zaio hainbat neurri –hertsatzaileak eta zigortzaileak barne– har ditzan, Plaza Barrian terrazak jartzeko orduan espazio publikoei buruzko ordenantza betetze aldera.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa aurkeztu zuen erakunde honetan, Bilboko Udalarari bidalitako hainbat salaketa eta eskaeraren berri emateko. Horiek guztiak Plaza Barrian dauden hainbat establezimenduk terrazei buruzko udal erregulazioa behin eta berriz urratzearekin zerikusia dute.

Geroago, kexagileak hainbat idazki osagarri ere aurkeztu zituen: horiek, salatutako eragozpenak jasaten dituzten auzokideekin batera, Bilboko Udalean aurkeztu zituen lehenago.

Azaldutako arazoen aurrekari gisa, interesdunak **Arartekoaren 2015R-205-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 28koa**, aipatu zuen. Ebazpen horren bitartez, erakunde honek Bilboko Udalarari gomendatu zion beharrezkoak ziren neurriak har zitzaizkien Plaza Barriko terrazak espazio publikoaren okupazioa arautzen duen udal baimenean ezarritakoarekin bat egin zezaten, irisgarritasunari buruzko araudia eta espazio publikoaren ordenantza betez.

Honako arrazoi honek eragin zituen aipatutako salaketak: kexagileen ustez, adierazitako gomendioa eman ondoren, espazio publiko horren egoerak onera egin beharrean, okerrera jo zuen, udalak ordenantzak eta araudi sektoriala betearazten ez dituelako.

Izan ere, eskaintza handitu egin da hiru establezimendu berri ireki dituztelako, eta, horrez gain, baimendutako mahai eta aulkiak ugaritu egin dira eta arkupeetako espazio publikoa kupelek eta apalek okupatzen dute; ondorioz, kontsumitzaileak pasagune horietan pilatzen dira eta ez diete bizilagunei etxera sartzen uzten. Eragozpenak jasaten dituzten auzokoen arabera, haiek dakitela, espazio publikoa arautzen duen ordenantza ez da aldatu, eta horrela bada, arkupeetan jartzen diren eta plazan egunetik egunera ugaritzen diren elementu horiek guztiak irregularrak dira, baina udalak ez du horiek kentzeko neurririk hartzen.

Gainera, beste arau batzuk ere hausten dira: hain zuzen ere, Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia ez da betetzen. Izan ere, fatxadetan tamaina handiko kartelak jarri dira, arkupeko harriak zulatuz. Gertaera horien berri udalarari eman zitzaizkion eta hark SURBISARA bideratu zuen kontua. Sozietate publikoak jakinarazi zien auzokoei Alde Zaharreko hirigintzako araudiak debekatzen duela horrelako kartelak jartzea, baina ikuskapenak egiteko eskumena Obra, Zerbitzu eta Espazio Publiko Sailari dagokiola; interesdunek, hain zuzen ere, sail horretara jo zuten hasieran.





Azkenik, keaxak berriz ere adierazi zuen establezimendu gehienek ez dituztela okupatzeko baimenak betetzen: baimendutakoak baino mahai eta aulki gehiago jartzen dituzte, mahaiak baimendutakoak baino handiagoak dira, plazako irtenbideak eta arkupeak altzariekin oztopatzen dituzte, eta abar.

2. Kexa izapidetzeko onartuta, Arartekoak informazioa eskatu zion Bilboko Udalari. Hark, lehenengo erantzunean, Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko ordezkaria den alkateordearen txostena bidali zuen, baita SURBISAren txostena ere; horiekin bat, argazki-txosten bat erantsi zuen, plazak 2013an eta 2017ko uztailaren 27an izan zuen egoera erakusten duena.
3. Lehenengo erantzun hori ikusita, Arartekoak jakinarazpenean azaldutako hainbat konturi buruzko informazio osagarria eskatu zion udalari.
4. Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko ordezkaria den alkateordeak gure eskaerari erantzun zion, zenbait dokumentu erantsita.

Egoera hobeto ulertzeko eta sistematikoki azaltzeko, gogoetei buruzko atalean erakunde honek bidalitako informazio-eskaeren edukia, baita udaletik jasotako erantzunak ere, azalduko dira.

5. Azkenean, aurrekari garrantzitsu gisa, "Plaza Barriko tabernei buruzko zirkularra" aipatu behar da, espazio publikoaren eta barrutien erabileraren ikuskatzaileek 2018ko martxoaren 22an Plaza Barriko taberna bakoitzari entregatu ziotena.

Gogoetak

1. Testuinguru orokorra.

Arartekoak agertutzat jo behar du Bilboko Udalari zuzendutako **Arartekoaren 2015eko urriaren 28ko 2015R-205-15 Ebazpenaren** gogoeta nagusia, gai eta espazio publiko berari buruzkoa.

Ebazpen hartan esandakoaren arabera, Bilboko Udalaren espazio publikoari buruzko ordenantzaren zioen azalpenarekin bat, espazio publikoaren erabilera komuna babestea da udalaren erregulazioaren xedea. Izan ere, espazio publikoa pertsona guztiei berdin eta era berean dagokie, kalitatezko erabilera komunaren nagusitasuna eta lehentasuna ezarri gainerako erabilera kentzaile edo mugatzaileen aurretik, eta udalaren jardunbidean aplikatzeko irizpide orokorra da.

Terrazak eta mahaiak jartzeko baimenek kalte handia eragiten diete inguruko auzokideei. Udal administrazioak neurriak hartu behar ditu eragin negatibo





horren aurrean, aire zabaleko jarduera horiek argi eta garbi sortzen dituzten eragozpenak murrizteko. Zentzu horretan eta gutxienez, modu zuzenenean eragindakoek aurkezten dituzten salaketan aurrean sentikorra eta proaktiboa izateaz gain, udalak eraginkorra izan behar du espazio publikoa okupatzeko ezarritako baldintzak zorrotz betetzeko eskatzen duenean, ikuskaritza- eta kontrol-neurri egokiak ezarriz, dagokion zigortzeko espedienteak izapidetzea barne, urraketa gertatu den kasuetan. Hori guztia, udalaren erregulazioan bertan ezarritakoari jarraikiz.

Testuinguru horretan, hurrengo apartatuetan auzokoen salaketak aztertuko ditugu; horien bidez, auzokideek salatu dute, alde batetik, Plaza Barriko ostalaritza-establezimenduek terrazak jartzean espazio publikoei buruzko ordenantza urratzea, eta bestetik, emandako informazioarekin bat, Bilboko Udalak burututako jarduketak.

2. Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia ez betetzea.

SURBISAko arkitektoak igorritako 2017ko uztailaren 18ko txostenaren arabera, Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak, 2016ko ekainaren 30eko osoko bilkuraren erabakiz aldatutakoak, araubide berria ezarri du hirigintza-erabilerei dagokienez, besteak beste, ostalaritza-erabilerari dagokionez, Alde Zaharreko hiri-ingurunea eta ingurumena babeste aldera. Plaza Barriari dagokionez, erregulazio berriak debekatzen du II. talde gisa kalifikatutako jarduera berriak jartzea (hau da, tabernak, taberna-jatetxeak, kafetegiak). Ordutik aurrera, ostalaritzako zerbitzu osagarria duen gozotegi-jarduera bat baimendu da bakarrik, erregulazio berriarekin bat zegoelako; hala ere, hirigintza-erabilera berriak indarrean jarri baino lehen bi baimen eman dira II. taldeko ostalaritza-jarduerak irekitzeko.

Salatutako urraketari dagokienez, txostenak aipatu du hirigintzako araudi aplikagarriak ez diela uzten beheko solairuko saltokiei eraikinen irekidurarik gabeko paramentuetan publizitate-errotulu edo -kartelak jartzen; eraikinetako beheko solairuetako baoetan edo hutsune arkitektonikoetan jar daitezke horiek. Ondorio horietarako, txostenak adierazi du salatutako kasuek ez dutela baimenik. Azkenean, txostenarekin bat, Plan Bereziaren hirigintza-arauak aplikatzearekin zerikusia duten hirigintza arloko ez-betetzeak –hala nola kartelak udalaren baimenik gabe jartzea– ikuskatzeko eskumena Obrak eta Hirigintza Ikuskatzeko Taldeari dagokio.

Illo horretan, udalaren lehenengo erantzunak, 2017ko uztailaren 28koak, erakunde honek bidalitako informazio-eskaerari erantzunez jasotakoak aipatu zuen kexa Obrak eta Hirigintza Ikuskatzeko Taldeari helarazi zitzaizela, urratutako hirigintza-ordena berrezartzeko beharrezko espedienteak ireki zitzaizela.

Gai horri dagokionez, Arartekoak informazio osagarria eskatu zuen hasitako espedienteei eta izapidetze-egoerari buruz, baita aurkeztutako salaketan gainean igorritako ikuskapen-aktei buruz ere.





Udalak, 2017ko martxoaren 14an, Espazio Publikoa Erabiltzeko Bulegoko ikuskaritza taldearen txostena helarazi zuen. Horren arabera, bi ostalaritza-establezimendutan ahozapitakoak –fatxadari finkatuta– jartzea egiaztatuta, egoera hori konpondu behar zela adierazi zen eta horiek 24 orduko epean kentzeko eskatu zen. Txostenak ondorioztatu zuenez, establezimendu biek bete zuten errekerimendua eta elementu horiek kendu zituzten.

Kartelak jartzeari dagokionez, 2017ko otsailaren 18an eta 2018ko martxoaren 1ean egindako argazki-txostena helarazi da; horretan, ikuskatzaileak adierazi du hainbat lokalek jartzen dituztela kartelak fatxadetan. Ikuskatzaileak egindako beste bi argazki-txostenetan, ekainekoan (eguna zehaztu gabe) eta 2017ko uztailaren 27koan, egiaztatu da hirigintza-arauak ez dela betetzen, gune horretako zenbait establezimenduk kartelak irekidurarik gabeko paramentuetan jartzen dituztelako. Eragozpenak jasaten dituzten auzokoek 2018ko maiatzeko argazki-txostena erantsi dute, urraketa horrek bere horretan jarraitzen duela erakusten duena.

Laburbilduz, udalak ez du aipatu Plan Berezia jasotako hirigintza-arauak benetan betetzea bermatzeko neurririk; arau horien arabera, beheko solairuko saltokiek ezin dute eraikinen irekidurarik gabeko paramentuetan publizitate-errotulu edo -kartelik jarri. Era berean, ez du aipatu salatutakoa zigortzeko zehapen-espediterik ireki denik.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 204. artikuluan ezartzen du udalak arduratuko direla legeak xedatutakoa eta plangintza betetzen dela zaintzeaz; ahalmen horiek, gainera, utziezinak dira. Horretarako, agintari eta funtzionarioek legean ezarritako prozedurak hasi eta bideratu behar dituzte, kasu bakoitzean aurreikusitako epeak betez, eta betebeharrak ez betetzeak diziplina-erantzukizuna ekar dezake ondorioz. Horrela, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 225.4.b) artikuluan xedatutakoa gogorarazi behar da: horren arabera, erantzukizuna izango dute lurralde-antolamenduan eta hirigintzan eskumena duten toki-erakundeetako kideek eta agintariek, ezkutuko ekintza edo jarduerak eta hirigintzako arau-hausteak ikuskatzeko, babesteko, konpontzeko eta zehatzeko ahalmenez baliatzen ez badira.

Hori dela eta, udalak eraikinetako irekidura gabeko paramentuetan jarritako elementu guztiak –publizitate-kartelak eta besteak– kentzea lehenbailehen agindu (Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 203. art.), eta kaltetutako fatxadak takoak, torlojuak eta abarrekoak jarri aurretiko egoerara leheneratzea ziurtatu behar du. Hala badagokio, bere esku dauden neurriak –egikaritze subsidiarioa eta isun hertsatzaileak barne– hartu beharko ditu, agindutakoa benetan betearazteko.





Gainera, plangintzarekin bat ez datozen eta dagokion baimenik ez duten hirigintza-jarduketak direnez, hala badagokio, zehapen-espedienteak ireki behar ditu, Plan Berezia urratzeagatik.

3. Espazio publikoari buruzko ordenantza aldatzea, dagokion prozedura bete gabe eta irisgarritasunari buruzko araudi sektoriala bete gabe.

Bere lehenengo informazio-eskaeran Arartekoak aipatu zuenez, kexagilearen arabera, espazio publikoa arautzen duen ordenantzarekin bat ez datozen barririk eta apalak arkupeetan jartzea baimendu zen, erakunde honek egindako aurreko esku-hartzearen ondorioz kupelak kendu eta gero. Udalaren erantzunean honela adierazi da: *“Se han retirado los elementos (mesas y sillas) que interceptaban los pasos en los pórticos o arkupes.”*

Lehenengo erantzun hori ikusita, Arartekoak informazioa osatzeko eskaera bidali zuen. Hain zuzen ere, kexa aurkeztu zuten auzokideengandik jasotako Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2015eko urriaren 27ko ebazpenari buruzko informazio osagarria eskatu zuen, ebazpen horren bidez baimendu baitzen arkupeetan bi kupel erdi jartzea, ostalaritza-establezimenduen fatxadei atxikita. Kontu horri dagokionez, aipatu gomendioaren seigarren kontuan hartuzkoan esandakoa gogorarazi zitzaion udalari: *“... ibilbideek jarraituak izan behar dute, eta ahalik eta ibilbide laburrenetik joan. Gauzak horrela, arauak aurreikusi du honako ibilbideek betetzen dituztela hobekien baldintza horiek espaloietan: fatxadako lerroarekin mugakidea den espazioa libre uzten duten ibilbideak, ahaztu gabe, eta garrantzitsua da adieraztea, marraketak, bere osotasunean, koherentzia eta beharrezko jarraitutasuna eduki behar dituela zebrabideekin, bidegurutzeekin eta abarrekin.”*

Halaber, udal ordenantza aipatu zen, hain zuzen ere, horren 49.1.b) artikulua, oro har, honako hau xedatzen duena: *“Behar bezala berrmatuko da oztoporik gabeko oinezkoentzako ibilbide bat; ibilbide horrek gutxienez lau (4) metroko zabalera izango du fatxadaren lerrokadura bakoitzean; bestela, bat egongo da erdian, hiri-altzariaren baldintzen arabera.”*

Baimendutako kupel erdiak jartzea bai irisgarritasunari buruzko araudi sektorialaren kontra, bai ordenantzaren beraren kontra dagoela ulertuta, Arartekoak esanbidez eskatu zuen txosten tekniko bat, aipatu erregulazioa betetzea justifikatzen duena. Udalak ez zion eskaera horri erantzun, eta ez zuen txosten teknikorik bidali.

Udal ordenantza ezin da irisgarritasunari buruzko legediaren aurkakoa izan; legedi hori, hain zuzen ere, honako hauek osatzen dute:





- 20/2007 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen.
- VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa, hirietako espazio publikoetara sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasun eta bereizkeriarik gabeko oinarriko baldintza teknikoak agiri teknikoak garatu duena.

Saileko zinegotzi ordezkariak, gainera, ezin ditu udal ordenantza alda dezaketen baimenak eman. Hori dela eta, erakunde honen iritziz, Plaza Barriko arkupeetan kupel erdiak jartzeko baimena udal ordenantzaren kontrakoa da; gainera, horretarako eskumenik gabeko organo batek eman du, udal ordenantzak onartzeko eta aldatzeko legez ezarritako prozedura kontuan hartu gabe [Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 123.1.d) artikulua]. Ordenantzak eta araudiak onartzea, baita horiek aldatzea ere, osoko bilkuraren eskumenak dira eta, besteak beste, jendaurrean jartzea eskatzen dute.

Aurreko guztiaz gain, udalak helarazitako argazki-txostenek egiaztatzen dute baimenik gabeko kupel osoak daudela, baita kupelen ondoan aulkiak, kupel erditzat jo ezin daitezkeen kupelak, hormatik aldentutako kupelak, eta abarrekoak ere; horrek guztiak urraketaren larritasuna erakusten du, arkupeak okupatzearen alde horri dagokionez. Argazki-txosten gehienak goizeko lehen orduan egin direla kontuan hartuta, ez da zentzugabea imajinatzea zenbaterainokoa den ez-betetzearen maila jende gehien dagoen orduetan eta nolako zailtasunak izan behar dituzten auzokoek espazio publikoa erabiltzeko.

Hori dela eta, udalak, alde zuzenetik dagozkion izapideak bete ondoren, ondoriorik gabe utzi behar du 2015eko urriaren 27ko baimena –Plaza Barriko arkupeetan kupel erdiak jartzeko–, esparru horretan ezin baita horrelako oztoporik eta inolako oztoporik egon gutxienez lau metroko zabaleran, fatxadako lerroak bakoitzean.

4. Espazio publikoari buruzko ordenantzaren beste urraketa batzuk.

Udalak hainbat ez-betetzari buruzko salaketari emandako lehenengo erantzunean hauxe adierazi zuen: *“Se verifica constantemente la adecuación de las instalaciones a la autorización concedida, sin que se produzcan apilamientos ni se originen obstáculos que impidan la accesibilidad por los elementos de las actividades hosteleras”.*

Arkupeetako irisgarritasunari dagokionez, oro har, aurreko atalean erantzun da dagoeneko; hala ere, bertakoak ibiltzea oztopatzen duten beste urraketa batzuk aipatu behar dira atal honetan. Izan ere, 2017ko irailaren 28ko salaketan, udalean aurkeztutako idazkia sinatu zuten pertsonak azaldu zuten, terrazak jartzen direnean, askotan, establezimendu bakoitzari horretarako emandako esparrua baino leku gehiago okupatzen dute eta plazarako sarbideak





oztopatzen dituzte; adibidez, Ekain koben kaletik plazan sartzeko bidean ez da betetzen pasagunearen zabalera, eta ezin da plazara iritsi arkupean eta arkuazpiaren aldetik, terrazen artean zirriturik ez dagoelako.

Kontu horri dagokionez, udalak bere bigarren erantzunean adierazi zuen ikuskatze-baliabideak mugatuak izan arren, kexak ikusita, Plaza Barrian ikuskapenak sistematikoki egiten zirela; erantzunarekin batera, hainbat establezimendutan egindako ikuskapenen aktak erantsi zituen, ostalaritza-jarduera guztiek *“han cumplido lo ordenado con una única excepción (AAA)”* esanez.

Udalak agindutakoa betetzen dela aipatzen duenean, esan nahi du, antzemandako urraketaren aurrean, ikuskatzaileak emandako agindua une hartan bertan bete egiten dela, hau da, funtsean, egiaztatzen da auzokideek salatutako urraketak daudela, baina berehala konpontzen direla errekerimendua egiten den unean bertan. 1. eta 7. ikuskatzaileek igorritako txostenetako bat aipatzeko:

“A las 14:10 horas del día 24 de octubre de 2017, los inspectores que suscriben se han personado en la Pza. Nueva, a fin de comprobar el nivel de cumplimiento de los diversos locales de hostelería en la instalación de sus terrazas, pudiendo observar como la taberna (BBB) tenía apiladas en la calle un total de cinco mesas y doce sillas, además de las que tiene autorizadas.

Dado que a este local se le ha requerido verbalmente en varias ocasiones que instale su terraza según se especifica en la resolución administrativa que autoriza su instalación, se procedió a levantar un Acta de inspección en la que se recogen dichas irregularidades y se le ordena la inmediata retirada de los elementos no autorizados. Lo que informo a los efectos oportunos”.

Laburbilduz, establezimendu hori, udalaren iritziz, ordenantza betetzen duten horietako bat da; hala ere, ikuskatzaileek egiaztatzen dutenez, establezimenduak behin baino gehiagotan urratu du baimenean eta ordenantzan ezarritakoa, jarritako elementuen kopurua gainditu duelako, elementuak pilatzen dituelako, eta abar; horrek ez du esan nahi, baimenean ezarritakora egokitzeko agintzen zaionean, agindua “une horretan” betetzen ez duenik.

Udalaren arabera agindutakoa bete ez duen ostalaritza-establezimendu bakarrari dagokionez, ikuskapen-aktak goian adierazitakoaren antzekoa esan duela egiaztatu da. Izan ere, aktaren arabera, 2017ko urriaren 25ean, dagokion zehapen-espeditatea irekitzea proposatu zen; hala ere, 2017ko abenduaren 14an, saileko zinegotzi ordezkariaren txostena igorri zen egunean, hau da, hilabete eta erdi geroago, ez zen zehapen-espeditatea edo horretarako izapideak hasi izanari buruzko informaziorik eman.





Azkenik, ukitutako herritarrek salatutako beste kasu bat aipatzearen, 9. zenbakia duen ikuskatzaileak 2017ko ekainaren 14ko 10:25ean egindako argazki-txostenean jakinarazi zuen (AAA) establezimenduak zutabeen artean tripodeak jartzen zituela, eta (XXX) establezimenduak *“a veces monta para turistas”*. Ez dago jasota urraketa larri horien ondorioz zehapen-espedienterik ireki denik.

Erantzunik gabe geratu diren urraketak gertatu direla erakusgarri gisa, plazan bizi diren auzokideek –hainbat salaketa aurkeztu zituztenek– espazio publikoa eta barrutiak erabiltzeko zuzendariordetzak 2018ko martxoaren 22an bidalitako zirkularraren kopia bana jaso zuten, Plaza Barriko establezimenduen titularrei helarazi zitzaizela adierazita. Zirkularrak honako hau dio hitzez hitz:

“Ante las reiteradas quejas de vecinos de la Plaza Nueva por diferente problemática que generan las actividades de hostelería, se ha comprobado por parte de la inspección de Espacio Público que algunos bares continúan cometiendo infracciones fáciles de subsanar:

1- No se pueden apilar las sillas y mesas en el interior de los arcupes ni entre los arcos que acceden a ellos por una cuestión de seguridad y accesibilidad. Es preciso dejar libres las vías de tránsito y evacuación peatonal.

2- Se autorizaron 2 medias kupelas por actividad porque los titulares de las actividades plantearon la necesidad de que los clientes pudieran salir a fumar. El resto de mobiliario que se instala en fachada y en el exterior de los bares NO ESTÁ AUTORIZADO y se debe retirar inmediatamente (baldas, bancos?).

3- El arrastre de mobiliario de las terrazas (sillas, mesas?) origina molestias por ruido por lo que estas prácticas están prohibidas.

4- Las barras que dan servicio al exterior abriendo huecos en las fachadas únicamente se permiten, a solicitud del titular, en Aste Nagusia.

Se entrega esta circular a todas las actividades hosteleras de plaza Nueva con la finalidad de que continúen cumpliendo la normativa vigente.

Si alguna de las actividades incurriera en alguna de las infracciones descritas, se incoará el correspondiente expediente sancionador.”

Ukitutako auzokoen arabera, zirkularrak ez du inolako eraginik izan, kexagileek 2018ko maiatzaren 10ean bidalitako argazki-txostenean ikus daitekeenez, bertan aipatutako arau-hausteak oraindik ere gertatzen direlako (kanpora begiratzen duten barrak, espazioa okupatzen duten atrilak eta beste elementu batzuk, baimenik gabeko arbelak eta beste batzuk fatxadetan, eta abar).





Bereziki aipatu behar da zirkularraren 4. apartatua, jarduera sailkatuak abian jartzeko eskatzen diren eskakizunak eta ezartzen diren neurri zuzentzaileak aldatzen dituela uler daitekeelako (besteak beste, baimendutako jarduera motaren arabera intsonorizazioa), horrelako jarduerak hirugarrenei sortzen dizkieten eragozpenak murriztea bermatzeko.

Nahiko pentsaezina da ostalaritza-establezimendu batek barrak kanpora begira jarri ahal izateko lokalean aldaketak egitea, eta horiek urtean astebetetz soilik erabiltzea. Salbuespenezko eta aldi baterako baimena –herriko jaiak direla eta abian jartzen den neurria– eztabaidagarria badirudi, are gehiago, inola ere ezin da baimendu, dagokion proiektuarekin bat, jarduera sailkatua irekitzeko baimena ez betetzea eragin dezakeen neurri bat, baimen hori aipatu ostalaritza-jarduera aldatzeko proiektua izapidetu ondoren gauzatu ez bada.

Laburbilduz, apartatu honetan adierazitakoarekin bat, erakunde honek oraingo honetan zein 2015eko gomendioa egin baino lehen jasotako informazioaren arabera, plazako ostalaritza-establezimendu askok –gutxi gorabehera etenik gabe– ez dituzte baimenak eta espazio publikoei buruzko ordenantza betetzen; araudia betetzen ez duten establezimenduen izen batzuk behin eta berriz agertzen dira gainera.

5. Ikuskatze-eginkizuna eta zehapen-espedienteak hasteko erantzukizuna.

Dagoeneko 2015eko gomendioan adierazi zenez, udalak egoera hobetu egin zela iritzi zuen arren, inguruan bizi diren auzokoak ez daude ados. Edonola ere, ikuskapen-txostenek egiaztatzen dutenez, ostalaritza-establezimenduek behin eta berriz urratzen dute espazio publikoei buruzko ordenantza. Gainera, behin eta berriz gertatzen diren ohiko arau-hauste batzuk larriak edo oso larriak dira, baina udalak ez du egokitzen jo araudian bertan ezarritako neurri zigortzaileak aplikatzea, ordenantzaren 135. artikuluan xedatutakoa barne (baimenak balio gabetzea eta denbora jakin batez baimen berria eskatu ezin izatea).

Arartekoak jakin badaki eskura dauden giza baliabideak mugatuak direla beti, baina horregatik, hain zuzen ere, baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko orduan efizientziaz eta eraginkortasunez jo behar da, ikuskapenak egiteak legedia benetan betetzea ekar dezan, horretarako, erabil daitezkeen neurri guztiak erabiliz; zigortzeko eskumena duenaren erantzukizuna da bere eskura dauden neurri hertsatzaileak jartzea, konbentzitzen saiatzeak emaitzarik ez dakarrela ikusita. Udalaren betebeharra da emandako baimenak kasu guztietan betetzen direla zaintzea.

Azkenik, jarduketa publiko guztiek bete behar dituzten efizientzia eta eraginkortasunaren printzipio orokorrez gain, administrazio publikoek objektibotasunez egin behar dute lan interes orokorraren alde, legeak eta zuzenbidea bete-betean errespetatuz; herritarrek, gainera, eskubidea dute erakundeek eta horietako ordezkariak beren jarduketetan printzipio horiek aplikatzen eta errespetatzen dituztela konfiantza legitimoa izateko (Sektore





Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikulua).

Laburbilduz, udalak, ikuskatzaileek espazio publikoei buruzko ordenantza hautsi dela antzematen duten bakoitzean, dagozkion zehapen-espedienteak bideratu behar ditu, inguruan bizi diren auzokoek eskubide legitimoa baitute udaletik – horrek, dagozkion eskumenak gauzatu, espazio publikoa modu zehatz batean okupatzea baimendu duenez– baimendutakoa zorrotz errespetatzea bermatuko duela espero izateko; horrela, gainera, udalak bete egiten du kalitatezko erabilera komunaren lehentasuna eta nagusitasuna ezartzen duen udal ordenantzaren zioen azalpenean agindutakoa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Udalak lehenbailehen agin dezan eraikinetako irekidurarik gabeko paramentuetan jarritako elementu guztiak kentzea, eta ziurta dezan kaltetutako fatxadak takoak, torlojuak eta abarrekoak jarri aurretiko egoerara leheneratzea, hala badagokio, agindutakoa benetan betearaztea bermatzeko bere esku dauden neurriak erabiliz, egikaritze subsidiarioa eta isun hertsatzaileak barne.
2. Hala badagokio, pausuak eman ditzan Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia urratzeagatik zehapen-espedienteak irekitzeko.
3. Aldez aurretik dagozkion izapideak bete ondoren, ondoriorik gabe utz dezan 2015eko urriaren 27ko baimena –Plaza Barriko arkupeetan kupel erdiak jartzeko–, esparru horretan ezin baita horrelako oztoporik eta inolako oztoporik egon gutxienez lau metroko zabaleran, fatxadako lerrokadura bakoitzean.
4. Berrikus ditzan, hala badagokio, barra-zerbitzua kanpoan emateko asmoz fatxadetan irekidurak egiteko emandako baimenak, eta, irekidura horiek legearekin bat ez badatoz, eta/edo baimendutakoa baino denbora luzeagoz erabiltzen badira, berehala ixtea agin dezan, agindutakoaren eraginkortasuna bermatzeko.
5. Lehenbailehen abiaraz ditzan dagozkion zehapen-espedienteak espazio publikoei buruzko ordenantza urratzeagatik, udal ikuskatzaileek igorritako txostenen arabera, espazio publikoei buruzko ordenantzaren eta dagozkion baimenen urraketatzat jo daitezkeen egoeretan, bereziki irisgarritasunaren arloko arau-haustek aintzat hartuta.

